



JUSTIZIA LEHENERATZAILEARI BURUZKO NAZIOARTEKO SINPOSIOAREN INAUGURAZIOA

**(Deustuko Unibertsitatea - Bilbo)
2019-06-05**

Buenos días a todas y todos. Egun on guztioi: Good morning

Atsegin handiz inauguratuko dut justizia leheneratzaileari buruzko nazioarteko sinposio hau Euskadin, zuzenbidearen eta epailetzaren munduan hain aintzatetsiak diren pertsonekin batera.

Eskerrik asko TÖRZS, Justizia Leheneratzailearen Europako Funtseko zuzendaria, sinposio garrantzitsu hau antolatzeke begirunea edukitzeagatik eta atzo Europako Foroaren Urteko Batzordea Bilbon egin izanagatik.

Eskerrik asko, halaber, GEMA TOMÁS Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa, barruti paregabe honetan harrera egin eta ekitaldian parte hartzeagatik.

LUIS ÁNGEL GARRIDO Administrazioarekiko Auzien Salako presidentea eta, ekitaldi honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko ordezkaria, eskerrik asko bertaratzeagatik.

CONCHA SÁEZ Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea, bereziki justizia leheneratzailean inplikaturik zauden hori, eskerrik asko gaur gure artean egoteagatik.

Eta, azkenik, eskerrik asko, CARMEN ADÁN, Euskadiko fiskal nagusia; izan ere, badakit ahalegin bizia egin behar izan duzula zure agendan leku bat egiteko eta inaugurazio honetan parte hartu ahal izateko.

Zorionak antolatzaileei; izan ere, ziur nago sinposioak sekulako arrakasta izango duela; harrerari besterik ez zaio erreparatu behar.

Ia 250 parte-hartzaile, autonomia-erkidego guztietakoak, eta beste horrenbeste Europatik eta mundu osotik etorriak.

Ongi etorri guztioi.

Espero dut azterketa eta hausnarketa hauek aprobetxatzea eta gure Euskadiko abegiaz eta onberatasunaz gozatzea.

Bertaratutako en artean epaileen kolektiboko operadore juridikoak, fiskaltza, justizia-administratioko eta abokatutzako letraduak eta bitartekari eta bideratzaileak ditugu, bai eta arduradun politikoak eta akademiako kideak, espetxeetako funtzionarioak, polizia eta beste hainbat ere.

Aniztasun horrek eta ezagutza-maila eta esperientzia praktikoa horrek ziur nago eztabaidak, trukeak eta ondorioak bideratuko dituztela, ekitaldi hau Europa osoan justizia leheneratzailea sustatzeko erreferente bilakatzeko.

Pertsonalki, Lan eta Justizia Saileko sailburua eta Zuzenbideko profesionala naizen aldetik, justizia leheneratzailearen printzipioekin identifikatzen naiz.

Nire ustez, bizikidetzarako balioak ematen ditu.

Balio horiek biktimitan eta gizartean oro har dute eragina.

Horren adibide bat honako ideia hau da: delituak kalteak eragiten dituzenez, justiziak osatu egin behar du, bereziki giza harremanak osatu behar ditu.

Edo gizartea inplikatzeko protagonismoa eta erabakitze gaitasuna itzultzen ari gaitzaizkiela pertsonari.

Halaber, justizia leheneratzailea onuragarria da biktimen osasun mentalerako, trauma osteko estresaren sintomak murrizten baitira.

Azterlan enpirikoek erakusten dute justizia tradizionalaren aldean leheneratzailea eraginkorragoa dela, delituan berrerortzea murrizteko orduan.

Azken batean, justizia leheneratzailea aplikatzen badugu, delitu gutxiago eta justizia eta demokrazia gehiago izan ditzakegu.

Horiek, esan bezala, hausnarketa pertsonalak dira, baina bat datoz, erabat, Euskadiko ondoz ondoko gobernuak hartu dituzten erabakiekin.

2017ko azaroaren 27an, Gobernu Kontseiluak Justizia Leheneratzailearen Europako Funtsean sartzeko ebazpena eman zuen.

Eusko Jaurlaritzak, erabaki horren bidez, Euskadin eta Europan justizia leheneratzailea praktika berritzaile izateari utzi eta Justizia Administrazioan errealitate bilakatzea ekarri duen joerarekin bat egin du.

Gure inplikazioaren adierazle dira zenbait ekintza, eta horietako batzuk nabarmenduko dizkizuet.

Hasteko, teorikoentzat jo daitezkeenak azalduko ditut eta, ondoren, praktikoa.

Duela 10 urte, zehazki, Justizia Sailak Europako Foroaren Nazioarteko seigarren konferentzia antolatu zuen, Bilbon, "Europako justizia leheneratzailea egiten: praktika

ezarriak eta programa berritzaileak” izenburupean. Orduko sailburu izan zena, Idoia Mendia, hemen dugu.

Gaurko sinposioaren izenburua honako hau da: “Zigor-arloko Bitartekaritzatik Justizia Leheneratzaileara. Politikak eta Praktikak Trantsizioan”.

Egon den bilakaeraren adibide grafikoa dela uste dut; teoriatik praktikara igaro gara.

Gure antolamendu proaktiboaz gainera, aitortu behar da aurrerapenak egon direla araudi-arloan.

Une nabarmenena Delituaren Biktimaren Estatutua da, 4/2015 Legea; horrek 2012/29/EB Zuzentaraua desagerrarazi du. Horren bidez, biktimek agintariekin lehenengoz harremanetan jartzen direnetik justizia leheneratzaileko zerbitzuak daudela jakiteko duten eskubidea ezartzen du.

Bestalde, Europako Kontseiluaren oraintsuko ebazpena onartzea dakar, 2018ko urriaren 3koa; horrek estatu kideei justizia leheneratzailea bitartekaritza gainditzen duen eta egunotan aztergai eta eztabaidagai egongo den paradigma berri gisa sustatzeko eskatzen die.

Bada, araudi-eskema horretan oinarrituta, 2017. urtean Justizia Leheneratzaileko Zerbitzua abian jartzeko lehiaketa deitzeko erabakia hartu genuen; hura 2018ko abuztuaren 28an gauzatu zen.

Ekimen horrek ereduaren eta egun arte garatutako praktiken sakoneko aldaketa dakar.

Operadore juridikoekin erabat leheneratzaileak diren tresnak sustatzeko lankidetzan jarduteko helburuarekin bat dator, erabat; tresna horiek biktimaren eta kaltegilearen eta erkidegoaren ingurunea leheneratzeko elkarriketan parte hartzeko beharra dakarte, justizia leheneratzailearen funtsezko ezaugarriak direla aintzat hartuta.

Justizia Leheneratzaileko Zerbitzua sortzean, “zirkuluak” eta “hitzaldiak” horren praktika prototipiko gisa aintzat hartuta, Euskadi Europar buru da eremu horretan; izan ere, teknika berri horiek orokorrean sartzen dituen eta helduen zigor-jurisdikzioaren espazioan txertatzen dituen lehen administrazio publikoetako bat da.

Ekimen hori operadore juridikoen ordezkariekin partekatu eta adostu nahi izan dugu.

Hori bezalako gai garrantzitsu batean adostasuna lortzeko interesa erakusten du aurtengo otsailean lantaldea sortu izanak, Justizia Auzitegi Nagusiaren eta Fiskaltza Nagusiaren ordezkariekin, Justizia Administrazioaren letraduekin eta gure Saileko ordezkariekin. Lantalde horrek protokolo batean lan egin du, zigor-prozesuan eta Euskadiko barruti judizial guztietan praktika leheneratzaile berrien ezarpenari bide emateko.

Aldeetako bakoitzak bere iradokizunak egin ditu, eta protokoloari buruzko iritzia eman dute. Honako webgune honetan dago protokoloa eskuragarri: Justizia.eus

Aurrerantzean, gure erronka justizia leheneratzailearen kontzeptuan aurrera egin eta hura garatzea da, larritasun-maila gutxienera mugatzen ez dena, biktimaren beharretan zentratzen den kontzeptura bideratzeko.

Delituaren larritasunagatik, hasiera batean, automugaketarik gabe, eta erreferentzia-puntua hark eragindako kalteak konpontzea izanik, elkarrizketan oinarritutako topaketaren bidez.

Baldin eta biktimak uste badu praktika leheneratzailearen garapenak bere errehabilitazioan lagun dezakeela.

Arrakastarako baldintza ezinbestekoa izango da zerbitzuak operadore juridikoekin elkarlanean jardutea, aldean eskubide besterenezinak bermatzeko beharrezkoak direla aintzat hartuta.

Beraiek zehaztuko dute zer esparrutan sartu behar den prozesu eta akordio leheneratzailea, delituaren larritasun-mailaren ikuspegitik duen garrantzia eta zer prozedura-fasetan aplikatuko den.

Zerbitzu berria abian jartzeak beste jarduketa batzuk abiaraztea ere eskatzen du, besteak beste: parte hartzen duten operadore guztien etengabeko prestakuntza, justiziarekiko beste lankidetzaz-zerbitzu batzuk kudeatzen dituzten pertsonena barne –esaterako, Biktimari Arreta emateko Zerbitzua eta Zehapenak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua–.

Azken batean, biktima bera eta hura egonkortasunera itzultzea ekintzaren erdigune izatea, kalteak gizarteratzeko eta, ondorioz, horrek guztiak gizarrean eragin positiboa izateko.

Badakit nolako erronka dakarren hartutako erabakiak, baina ziur nago aitzindariak izaten ari garela abentura erakargarrian, eta emaitza onak ekarriko dituela ere ziur nago.

Espero dut sinposio horren bidez justiziaren kontzeptu berritzaile horretan aurrera jarraitu ahal izatea eta elkarrekin esperientzietatik ikasi ahal izatea.

Ziur nago bi egun hauetan ateratzen diren ondorioek justizia leheneratzailea Euskadin, Espainian eta European gero eta zabalduago dagoen errealitate bilakatzen lagunduko dutela.

Eskerrik asko, gracias, thank you